BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIA: UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEAREN AUDITORITZA LANAK EGITEKO ZERBITZUA KONTRATATZEA.

PLIEGO DE CONDICIONES TECNICAS: CONTRATO DEL SERVICIO DE REALIZACIÓN DE TRABAJOS DE AUDITORIA DE LA MANCOMUNIDAD UROLA ERDIA.

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Gipuzkoako Tokiko Sektore Publikoko Erakundeen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duen abenduaren 27ko 32/2018 Foru Dekretuaren 34.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, toki-erakundeek lankidetza publikoa edo pribatua eskatu ahal izango dute auditoretza publikoak egiteko.

Ondorioz, kontratu honen xedea da honako lan hauek egiteko zerbitzua ematea da 2022ko urtean:

- Urola Erdiko Mankomunitatearen kontuen edo finantzen auditoretza.
- Urola Erdiko Mankomunitatearen legezkotasuna betetzeari buruzko auditoretza
- Mankomunitateari urtean zehar eman beharreko aholkularitza zerbitzua, kontratuaren xedearekin zerikusia duten gaietan

Kontratu honen xedea da egiaztatzea Mankomunitatean kontabilitateko informazioa behar bezela aurkezten dela, informazio finantzarioaren eta, hala badagokio, aurrekontu informazioren arauzko esparru aplikagarriaren

1.- OBJETO DEL CONTRATO

En virtud de lo dispuesto en el artículo 34.1 del Decreto Foral 32/2018, de 27 de diciembre, por el que se regula el régimen jurídico del control interno en las entidades del Sector Público Local de Gipuzkoa, las entidades locales podrán recabar la colaboración pública o privada para la realización de las auditorías públicas.

En consecuencia, es objeto del presente contrato la prestación del servicio de realización de los siguientes trabajos para el ejercicio 2022:

- Auditoría de cuentas o financiera de la Mancomunidad Urola Erdia.
- Auditoría de cumplimiento de legalidad de la Mancomunidad Urola Erdia.
- Servicio de Asesoramiento, a prestar a la Mancomunidad durante el ejercicio, en aquellas materias relacionadas con el objeto del contrato.

El objetivo de este contrato es verificar si la información contable de la Mancomunidad se presenta adecuadamente según el marco normativo de información financiera, y en su caso presupuestaria, que le resulta de

UROLA ERDIKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA
Enparantza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

arabera, eta egiaztatzea Mankomunitatean egindako kudeaketa ekonomiko eta finantzarioko ekintzak, eragiketak eta prozedurak aplikagarria zaien legezko araudiari jarraituz egin diren.

aplicación, y si los actos, operaciones y procedimientos de gestión económico-financiera llevados a cabo en la Mancomunidad se han desarrollado de conformidad con la normativa legal que le resulta de aplicación.

2.- KONTRATUAREN EDUKIA

Adjudikaziodunak, lanaren azken emaitza moduan, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:

• **Auditoretza finantzarioaren txostena;** bertan jasoko da irizten zaion urteko kontuek entitatearen ondarearen eta egoera finantzarioaren, eta emaitzen eta aurrekontua egikaritzearen, irudi leiala ematen dutela, aplikagarria den arauzko esparruari jarraituz eta, zehazki, kontabilitateko printzipioen eta irizpideen arabera.

• **Legezkotasuna betetzeari buruzko auditoretzaren txostena;** bertan egiaztatuko da auditoretza jaso duen entitateak bete duen bere jarduera ekonomiko eta finantzarioa erregulatzen duen legezko araudia (legezkotasunera egokitzea kontabilitateko eta aurrekontuko alorrean, kontratazio administratiboan, hitzarmenak sinatzean, langileen kontratazioan eta gastuetan, eta jarduera ekonomiko eta finantzarioaren beste edozein alorretan).

• **Ohar eta gomendioen txostena;** bertan,

2.- CONTENIDO DEL CONTRATO

El adjudicatario deberá, como resultado final del trabajo, presentar los siguientes documentos:

• I**nforme de auditoría financiera**, que recogerá la opinión sobre si las cuentas anuales expresan la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de la entidad, así como de sus resultados y de la ejecución del presupuesto, de acuerdo con el marco normativo que resulte de aplicación y, en concreto, con los principios y criterios contables.

• **Informe de auditoría de cumplimiento de legalidad**, en el que se verificará si la entidad auditada ha cumplido, la normativa legal que regula su actividad económicofinanciera (adecuación a la legalidad en materia contable y presupuestaria, de contratación administrativa, suscripción de convenios, contratación y gastos de personal y en cualquier otro aspecto de la actividad económico-financiera.

• **Informe con las observaciones y**

UROLA ERDIKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA
Enparantza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

auditoreak Mankomunitatearen prozedura administratiboak eta kontabilitatekoak hobetzeko egoki iritzitako ohar eta gomendioak jasoko ditu.

recomendaciones que el auditor estime oportunas para la mejora de los procedimientos administrativos y contables de las entidades Informe con las observaciones y recomendaciones que el auditor estime oportunas para la mejora de los procedimientos administrativos y contables de la Mancomunidad.

Aipatutako txostenen egitura, edukia eta tramitazioak Estatuko Administrazioko Kontu Hartzailetza Nagusiak ezarritako kontrol finantzarioko eta auditoretzako arau teknikoetan ezarritakoari jarraituko dio.

La estructura, contenido y tramitación de los citados informes se ajustará a lo establecido en las normas técnicas de control financiero y auditoría dictadas por la IGAE

3.- KONTRATAZIOAREN XEDE DIREN LANEN IRISMENA:

3.- ALCANCE DE LOS TRABAJOS OBJETO DE CONTRATACIÓN:

1. Kontuen auditoretza edo auditoretza finantzarioa

1. Auditoría de cuentas o financiera

Honako lan hauek hartuko ditu:

Comprenderá las siguientes tareas:

Urola Erdiko Mankomunitatearen aurrekontuaren likidazioa egokitzen den aplikagarriak diren kontabilitateko eta aurrekontuko araudi eta printzipioetara, eta Urola Erdiko Mankomunitatearen ondare ekonomikoko emaitzaren kontua aztertu beharko da. Horrez gain, honako puntu hauek jaso beharko dira, idatziz:

Se deberá proceder al examen de la adecuación de la liquidación del presupuesto de la Mancomunidad Urola Erdia a la normativa y principios contables y presupuestarios que resulten de aplicación y al análisis de la cuenta de resultado económico patrimonial de Urola Erdia. Además, deberán plasmarse por escrito los siguientes puntos:

UROLA ERDIKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA
Enparantza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

• Auditoretza prozedurak aplikatzean topatutako mugak.	• Limitaciones encontradas a la aplicación de los procedimientos de auditoría.
• Aurreko ekitaldiko auditoretza txostenean jasotako eta ebatzitako salbuespenak berariaz jaso beharko dira, baita jarraitzen dutenak ere.	• Indicación expresa de las salvedades formuladas en el informe de auditoría del ejercicio anterior que hayan sido solventadas, así como de las que persistan.
• Ahuleziak, gomendioak, ondorioak eta auditoreak kontabilitateko prozedurak hobetzeko egoki iritzitako beste ohar guztiak.	• Debilidades, recomendaciones, conclusiones y todo tipo de observaciones que el auditor considere oportunos para la mejora de los procedimientos contables.
• Auditoria txosten eta analisiak euskaraz eta gaztelaniaz idatzita aurkeztu beharko dira.	• Los informes y análisis de Auditoría deberán presentarse por escrito en euskera y castellano.
2. Legezkotasuna betetzeari buruzko auditoretza	**2. Auditoría de cumplimiento de legalidad**
Honako lan hauek egin beharko dira Urola Erdiko Mankomunitatean. Egiaztatzea legezkotasuna betetzen dela:	Comprenderá las siguientes tareas sobre la Mancomunidad Urola Erdia. Verificar el cumplimiento de la legalidad en :
• **Pertsonal arloa** (Gastuen Aurrekontuko 1. Kapitulua):	• **area de personal** (Cap. 1 del Presupuesto de Gastos):
- Hautaketa-prozesuetan berdintasun-, publizitate-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak errespetatu direla egiaztatzea, eta Estatuko Aurrekontu Orokorraren legean aurreikusitako langileen birjarpen-tasa bete dela egiaztatzea.	- Verificar que en los procesos selectivos se han respetado los principios de igualdad, publicidad, mérito y capacidad y que se ha cumplido la tasa de reposición de efectivos prevista en la LPGE.
- Aldi baterako langileen kasuan, gutxieneko sarbide-printzipio horiez gain, sarbide hori premiazkoa eta atzeraezina dela justifikatzen	- Verificar que, en caso de personal temporal, además de estos principios de acceso mínimos, existe informe justificando la urgencia y el

UROLA ERDIKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA
Enparantza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

duen txostena dagoela egiaztatzea, Estatuko Aurrekontu Orokorrak egiteko Legean arautzen den moduan.

carácter de inaplazable de dicho acceso, tal y como se regula en la LPGE.

- Egiaztatzea 2022. urtean ordaindutako nominek ez dituztela gainditzen EAOLen aurreikusitako ordainsari-igoerak, eta Funtzio Publikoaren Legeari egokitzen zaizkiola.
- Nominen koadroaren egiaztapen aritmetikoa.

- Verificar que las nóminas satisfechas en el año 2022 no superan los incrementos retributivos previstos en la LPGE y se adecuan a la Leyes de Función Pública.
- Comprobación aritmética del cuadre de nóminas

• **Kontratazio arloa** (Gastuen Aurrekontuko 2. eta 6. Kapituluak):
- Horniduren eta zerbitzuen egoera eta lizitazio-beharrak aztertuko dira, SPKLren babesean. Zehazki, kontratu txikien bidez zerbitzuak jarraian ematen dituzten hornitzaileen urteko fakturazioa aztertuko da, SPKLn mota horretako kontratuetarako ezarritako zenbatekoak gainditzen dituztenean. Egiaztapen horiek egiteko, 347 ereduan jasotako informazioaren laginketateknikak aplikatuko dira.

• **Área de Contratación** (Caps. 2 y 6 del Presupuesto de Gastos):
- Se procederá a analizar la situación y necesidades de licitación en suministros y servicios al amparo de la LCSP. En concreto, se analizará la facturación anual de aquellos proveedores que vienen prestando servicios de forma sucesiva, a través de contratos menores, cuando superen las cuantías establecidas para este tipo de contratos en la LCSP. Para efectuar estas comprobaciones se aplicarán técnicas de muestreo de la información contenida en el modelo 347.

- 2022ko ekitaldian izapidetutako kontratuen luzapenen justifikazioa aztertzea.

- Analizar la justificación de las prórrogas de contratos tramitados en el ejercicio 2022

- SPKLren 118. artikulua kontratu txikietarako betetzen dela egiaztatzea.

- Verificar el cumplimiento del artículo 118 de la LCSP para los contratos menores.

• **Dirulaguntzak**: Dirulaguntzei dagokienez, ondokoak egiaztatu behar dira:

• **Subvenciones:** En relación a las subvenciones, se deberán comprobar:

UROLA ERDIKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA
Enparantza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

-Dirulaguntzaren justifikazioa behar bezala aurkeztu dela eta indarrean dagoen araudia betetzen duela.

-Que la justificación de la subvención se presenta correctamente y cumple la normativa vigente.

• **Diruzaintzako arloa:** bermatutako betebeharra bete ondoren bermeak itzuli direla egiaztatzea.

• **Área de tesorería:** Verificar que las garantías se han devuelto una vez cumplida la obligación garantizada.

Deskribatutako jarduketak egiteko, laginketa-teknikak aplikatuko dira.

Para efectuar las actuaciones descritas se aplicarán técnicas de muestreo.

2. Aurreko ekitaldiko barne-kontroleko txostena berrikustea:

2.1. Revisión informe de Control Interno del ejercicio anterior:

Aurreko ekitaldiko auditoretzan jaso diren salbuespenak eta oharrak ebazteko behar diren neurriak hartu diren egiaztatzea.

Verificar si se han adoptado las medidas pertinentes para resolver las salvedades y observaciones, en su caso, se hubiesen recogido en la auditoría del ejercicio anterior.

3.- LANAREN ANTOLAKUNTZA

3.- ORGANIZACIÓN DEL TRABAJO

Auditoretza lana auditoretza enpresako profesionalek egingo dute, bertako bazkide baten ardurapean, eta mankomunitateko Kontu Hartzailetzarekin koordinatuta. Edozein kasutan, adjudikaziodunek beren lana orokorrean auditoretzako arau teknikoen eta zehazki sektore publikoko auditoretzako arauen arabera egin beharko dute, eta arreta berezia eman beharko diote aplikagarria den foru araudiari.

El trabajo de auditoría será realizado por profesionales de la firma de auditoría, bajo la responsabilidad de un/a socio/a de la misma y en coordinación con la Intervención de la mancomunidad. En todo caso, los adjudicatarios deberán realizar su trabajo de acuerdo con las normas técnicas de auditoría en general y las normas de auditoría del sector público en particular, prestando especial consideración a la normativa foral de aplicación.

UROLA ERDIKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA
Enparantza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

Lanak egiteko, auditoreek beharrezko koordinazioa izango dute mankomunitateko Kontu Hartzailetzarekin, eta, hala adostuz gero, aldizkako bilerak egin ahal izango dituzte. Halaber, udaleko Kontu Hartzailetzak egiaztatu ahal izango du kontratua betetzen dela. Jarduketa horrek inola ere ezingo du eragotzi zerbitzua ematea, eta enpresak horretarako independentzia osoa izango du

Para el desarrollo de los trabajos, los auditores mantendrán la necesaria coordinación con la Intervención de la mancomunidad, pudiendo establecerse, de común acuerdo, reuniones periódicas. Además, la Intervención municipal podrá vigilar el cumplimiento del contrato. Dicha actuación en ningún caso podrá interferir en la prestación del servicio para lo cual la empresa gozará de plena independencia.

4.- LAN-PLANA

Lanak bi fase izango ditu: aldez aurreko fasea eta amaierakoa.

Aldez Aurreko Fasea, ikuskatu beharreko ekitaldiaren kontabilitate-itxiera baino lehen burutu beharko da eta horren barruan itxiera horretarako beharrezko aldez aurreko aholkularitza ere sartuko da.

Amaierako fasea hurrengo ekitaldian barrena egingo da, kontabilitate itxiera egin ondoren, eta enpresa esleipendunak beharrezkoak dituen agiriak jasotzen dituenetik bi hilabeteko epearen barruan behin betiko txostenak aurkeztuz amaituko da. Gutxieneko 10 eguneko aurrerapenarekin, txosten bakoitzari buruzko zirriborro bat aurkeztuko da, emandako dokumentazioaren interpretazio akatsik ez dagoela ziurtatzeko.

Beste lanen artean, ekitaldian zehar Mankomunitateak egindako kontsulta edo aholku eskaerak erantzun beharko dira.

4.- PLAN DE TRABAJO

La realización del trabajo comprenderá dos fases: La Fase preliminar y la final.

La Fase preliminar, que deberá realizarse con anterioridad al cierre contable del ejercicio a auditar y que incluirá también el asesoramiento previo necesario a dicho cierre.

La fase final se ejecutará durante el siguiente ejercicio, una vez realizado el cierre contable, y deberá terminarse con la entrega de los informes definitivos dentro de los dos meses posteriores a la recepción por la empresa adjudicataria de la documentación que precisen. Con una antelación mínima de 10 días, se presentará un borrador de cada informe, con el objeto de contrastar la inexistencia de errores de interpretación de la documentación aportada.

Sin perjuicio todo ello de las consultas o asesoramientos requeridos durante el ejercicio, que serán planteadas en función de las

UROLA ERDIKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA
Enparantza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

necesidades detectadas.

5.- ERANTZUKIZUNA

Kontuen auditoretza txostenak auditoretza lanak egin dituen auditoretza enpresaren erantzukizunpean igorriko dira, hark sinatuko du txostena, eta ezarritako legezko preskripzioen eta auditoretzako arau teknikoen menpe gelditukо da.

5.- RESPONSABILIDAD

Los informes de auditoría de cuentas se emitirán bajo la responsabilidad de la empresa auditora que hubiera realizado el trabajo de auditoría, quien firmará el informe y quedará sujeto a las prescripciones legales y Normas Técnicas de auditoría establecidas.

6.- GIZA BALIABIDEAK ETA BITARTEKO TEKNIKOAK

Deskribatutako lana burutzeko, Administrazio Baldintzetan zehaztutako epeetan kontratuaren xedea amaitua egon dadin beharrezkoak diren giza baliabideak eta bitarteko teknikoak edukiko ditu Enpresa esleipendunak.

Auditoria lanak egitearen talde arduradunak gutxienez osaketa hau izango du: auditore kontratuaren arduradun bat, taldeburu bat eta bi laguntzaile.

Bestalde, kontuan izanik, orokorrean, aztertu behar diren mankomunitateko agiriak euskaraz idatzita daudela, eta hizkuntzaren arrazoiengatik auditoria lanen garapen normala ez oztopatzeko, beharrezkotzat jotzen da enpresa esleipendunak bermatzea mankomunitatearekin lana burutzeko izendatzen dituen langileek (auditoria laguntzaileek) beren eginkizunak bi hizkuntza

6.- MEDIOS HUMANOS Y TÉCNICOS

Para la realización del trabajo descrito, la Empresa adjudicataria dispondrá de los medios humanos y técnicos necesarios para que el objeto del contrato esté finalizado en los plazos que se especifican en las Cláusulas Administrativas.

El equipo responsable de la realización de los trabajos de Auditoria constará al menos de un auditor/a responsable del contrato, de un/a jefe de equipo y de dos ayudantes.

Por otra parte , dado que, con carácter general, los documentos a analizar para la realización del trabajo contratado se hallan tramitados en euskera y al objeto de que el normal desarrollo de la auditoria no se vea perjudicado, se establece como requisito necesario que las personas que la empresa adjudicataria designe para llevar a cabo su trabajo de relación directa

UROLA ERDIKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA
Enparantza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

ofizialetan egiteko, eta nahitaez egiaztatu beharko dute Europako Erreferentzia Markoaren C-1 euskarazko gaitasun maila

con la Mancomunidad (ayudantes de auditoría) deberán estar capacitados para trabajar en las dos lenguas oficiales y deberán acreditar obligatoriamente la capacitación lingüística de euskera C-1 del Marco Común Europeo de Referencia.

7.- KONTRATUA EGIKARITZEA

Auditoretza prozedurak aplikatzeko, honako jarduketa hauek egin ahal izango dira:

• Auditoretza jaso duen entitatearen kudeaketa ekonomiko eta finantzarioari zuzenean edo zeharka eragiten dioten edozein motatako dokumentu eta aurrekari guztiak aztertzea.

• Auditoretza egiteko beharrezkotzat jotako informazio eta dokumentazio guztia eskatzea.

• Auditoretza jaso duen entitatearekin lotutako hirugarrenei hark egindako eragiketen inguruko informazioa eskatzea.

• Informazio ekonomikoa eta finantzarioa eta kontabilitatekoa duten sistema informatikoen segurtasuna eta fidagarritasuna egiaztatzea.

• Auditoretza jaso duen entitatearen edozein aktibo motaren egiaztapen materialak egitea.

• Ondorioen oinarri gisa erabiltzeko frogak eskuratzeko beharrezko beste edozein jarduketa.

7.- EJECUCIÓN DEL CONTRATO

Para la aplicación de los procedimientos de auditoría se podrán llevar a cabo las siguientes actuaciones:

• Examinar todos los documentos y antecedentes de cualquier tipo que afecten directa o indirectamente a la gestión económica-financiera del ente auditado.

• Requerir toda información y documentación que se considere necesaria para el ejercicio de la auditoría.

• Solicitar a los terceros relacionados con la entidad auditada información sobre operaciones realizadas por aquella.

• Verificar la seguridad y fiabilidad de los sistemas informáticos que soporten la información económico-financiera y contable.

• Efectuar las comprobaciones materiales de cualquier clase de activos del ente auditado.

• Cualquier otra actuación que se considere necesaria para obtener evidencias en las que fundamentar las conclusiones.

UROLA ERDIKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA
Enparantza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

8.- LANEN KONFIDENTZIALTASUNA

Adjudikaziodunak nahitaez sekretupean mantendu beharko du bere lanetan ezagututako informazio guztia, eta ezingo du hori erabili auditoretza bera ez den beste helburu batzuetarako.

Azpeitian 2022ko azaroa

8.- CONFIDENCIALIDAD DE LOS TRABAJOS

El adjudicatario estará obligado a mantener el secreto de cuanta información conozca en el ejercicio de su actividad, no pudiendo hacer uso de la misma para finalidades distintas de las de la propia auditoría.

Azpeitian 2022ko azaroa

UROLA ERDIKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA
Enparantza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus